



Elkarrizketa



Mario Rinvolucrí

Ingeles irakaslea eta Ingalaterrako Canterbury bere egoitza duen Pilgrims erakundearen ikerketa eta garapenerako zuzendaria. Irakasle goaren prestakuntzara emana dago erabat, eta urtean ehunen bat egun egiten ditu bere herritik kanpo, hizkuntzen didaktikari buruzko ikastarotan lanean. Ingelesa irakasteko metodologiaz gain, gaztelania, italiara eta grekoa Alemanian eta Suizan italiara irakastekoak jorratuak ditu. Mariok bere buruaz dio ikasgelan bai ariketen alorrean bai psikologiarenean gertatzen den guztiaz arduratutako metodogile dela. Eragin sakoneko artikulu asko eta dozenerdi bat liburu baditu idatziak. Mario Rinvolucrí ez da idazle konbentzionala. Hainbeste imitatzaile dagoen alorrean, bere burutazio berri eta berri-tzaileak eskaintzen dizkigu.



GALDERA.— Zer eman dizu hizkuntza bakar baten metodologiara ez mugatu izanak?

ERANTZUNA.— Oso aberasgarri izan da niretzat. Nire ustez, metodología ona hizkuntza askori aplikatu dakioke funtsean.

G.— Zeure lanean garrantzi handia ematen diozu ikasle-taldeei hizkuntza irakasten aritzeari...

E.— Bai. Urtean sei bat astean aritzen naiz ingelesa irakasten. Izugarriko garrantzia du ihardun honek niretzat, beste lanetan aritzeko. Irakasleei zenbait gauza nola egin gomendatu nahi bazaie, alor horretako langile izatea beharrezkoa da. «Zuzenean» irakasten ari-

tzeko aukerarik ez baldin banu, ezingo nituzke beste lanak ere egin. Egunero-ko errealitateari lotuta egotea eta ikasleen erantzunkizuna edukitzea ezinbesteko gertatzen zait. Hori gabe, arraina lehorrean bezala nengoke. Hor dago, zalantzarik gabe, nire lanaren oinarria.

G.— Bada burutazio praktiko ugari zure liburuetan, argi eta zehatz-mehatz ageri dena.

E.— Bai. Halaxe da. Egokiera ederra da hainbat aldizkaritan idatzi ahal izatea, aldizkaria liburua baino irakurle gehiagori heltzen bait zaio. Liburua, agian, testu luze eta zaila irudituko zaio irakasleari. Nik artikulu motzak nahia-go ditut, erraz irakurtzen diren horieta-

koak, alegia. Liburuari horrelako begirada azkarra ematea zailagoa izaten da. Irudiaren kultural bizi garen honetan irakurtzea zailagotu egin zaigu. Behin baino gehiagotan etorri zait burura entzutezko aldizkaria kaleratzea, beste zer-baitetan ari garen bitartean gai «teknikoak» entzuteko aukera emango lukeela pentsatuz.

G.— Ikuspegi humanistikoaren zale omen zara. Zeintzu dira ikuspegi horren oinarriko ezaugarriak?

E.— Bada gure artean esaldi hori, «ikuspegi humanistikoa», beroni jarraiki irakatsi nahi dutenak baztertzeko erabiltzen duenik. Marginatu talde baten barruan hesitu nahi dute mugimendu humanistiko osoa, seguraski beldurra diotelako. Bide Isila, aipatzen dute, metodo humanistikoa bailitzan, edo Taldekako Hizkuntz Irakaskuntza edota Sugestopedia. Nirekiko, elkarrekin zerikusirik ez duten gauzak nahasten dituzte eta, horrela, denak nahasturik, pikturara bidaltzen.

Bai Bide Isilak bai Taldekako Irakaskuntzak asko irakatsi didate. Baina ikuspegi humanistikoak ikaslea ikusteko moduan du oinarria, ikaslea izaki oso bezala, bere ezaugarri eta ikasteko erarekin onartzean alegia. Horretan dago, hain zuzen, ikuspegi humanistikoaren funtsa: bestea den bezala onartzen saiatzean eta ez gure ikuspuntu eta aurreiritzien argitan. Ez da erraza eta lan luzea eskatzen du, emozionala eta adimenekoa. Geure klaseetan, ordea, askotan denak nahasian ikusten ditugu, ikasleen arteko aldeei erreparatu gabe. Eginbehar praktikoak ahazten ditugu; adibidez, ikasleari espresatzeko bidea ematea, geure ezinegonak markatu dugu martxan aritzea hobetsiz.

G.— Ikuspegi humanistikoak beste eskakizun batzu ere baditu; ikaskuntz estrategien eta hizkuntz klaseetako gaien eremuan, esate baterako. Zer derizkiozu guzti horri?

E.— Jo dezagun ikasleak era batean ikasi nahi duela. Zer eskubide dugu galerazteko? Ikasle batek, gero ikasteko, notak hartu nahi baditu, zergatik debekatu? Nire herrian, orain dela hamar

urte, Zuzeneko Metodoa puri-purian zegoenean, irakasle batzuk galerazi egiten zuten hiztegia erabiltzea. Hiztegia erabiltzea zilegi ez bada, zertarako da orduan? Irakasleok, nirekiko, zientifikoki ondo finkatutako ideiak beharko genituzte, ikasleen prozesuan eskua sartzeko.

Gaiari dagokionean, geuk ezarritako irakurgaietan oinarritzen ditugu klaseak askotan. Zergatik? Hizkuntza ikasteak duen zailtasunaz gain, taldeak berak aukeratu ez dituen testuak kanpotik ezartzen baldin baditugu, ez diogu agian ikasleari asko lagunduko. Era asko daude taldearen baitatik sortutako testuak antolatzeke. Adibidez, nik neure gorputzean dudan tatxaren baten historia kontatzen dudanean, nola sartu zitzaidan, alegia, nolako istripuan..., zergatik ez gonbidatu taldeko ikasleak, nahi dutenak, gauza bera egitera? Horrela bizitzako pasadizoetatik sortutako testu asko eta askotarikoak izango genituzke. Testuak paraleloak izanik, gaiak ere antzekoak izango lirateke —odola, zauria, laguntz deia...—. Horrela landuko liratekeen hitzen eremua ondo mugatua izango litzateke. Itxuraz zehaztasunik ez duen ariketa berez litzateke aski kontrolatua, hizkuntzari dagokionean. Ez genuke horrelako aukerarik alferrik galdu behar. Zenbaitetan, gisa honetako testuak deigarriagoak gertatuko dira kanpotik ekarritakoak baino. Jakina dago, esaten ari naizen honek ez ditu asko poztuko argitaletxeak. Mugimendu humanistak badu horrela, eta halabehar hutsez, osagarri antikapitalista bat; ez bait du testuak samaldan egiterik ekarriko.

G.— «Norberaren testuen» gain lanean aritzeak, geure esperientziaren aurrean batzu lanerako gai bihurtuko dituzten egoerak sortzeak, ez al ditu kontrako sentimendu bortitzak sortuko?

E.— Niretzat ez da erraz hizkuntza irakastearen eta terapi lanen mugak non hasten diren erabakitzea. Ez dakit nola erantzun. Batzutan beharrezko iruditu zait taldean lan terapeutikoa egitea. Zenbaitetan, itxura denez, ona izan da eta beste zenbaitetan txarra. Baina de-

nok bizi izan ditugu gai bat edo besteren irakaskuntza formalaren mugak gainditzea eskatzen zuten egoerak. Hau oso normala da hezkuntza ertainetan baina ez hainbeste, agian, helduen hezkuntzan. O.H.O.eko irakaslearekin hitzegiten baduzu, ez dizu ulertuko; hark bai bait daki haurren problematika osoari aurpegi eman behar diola. Neska-mutilak hamabi urteetara iristen direnean, ordea, beste begi batzuekin begiratzen die sistemak. Hamaika urte bete arte izaki oso bezala hartzen da haurra Europan, bai ulermenaren eta bai afektibitatearen aldetik. Horrela ikusten du mutikoa O.H.O.eko irakasleak eta horretarako prestakuntza ematen zaio. Baina heldutasuna iristean alderdi intelektuala edo teknikoa bakarrik izaten dugu go-goan. Ez luke horrela behar. Agian eredu ona izango litzateke O.H.O.eko maisua hezkuntza ertainetako eta helduen irakaslearentzako, osoko izaki bezala hartzen bait du umea.

G.— Baina «testuak» taldearen baitan ateratzearen alde dagoen ikuspegi humanistikoa nahi eta nahi ez izango da gutxi egituratua, ezta?

E.— Nik medikuntz ereduaren fede handia dut. Goizean bere kontsultategira doan medikuari etorriko zaizkion gaisoentzat nolako «programazioa» duen galdetzen badiozu, ez dakiela erantzungo dizu. Baina ez dugu salatuko horregatik intelektual moteldua denik. Denok aitortzen dugu gaisoen egoerak arautu behar diola lana. Erraz esaten da, ordea, horrelako estrategietan dabilen irakasleak planifikazio onik ez duela. Medikuntzako ereduaren eredu zaila da; lan gehiago egin erazten dio irakasleari, baina eredu fidagarria da.

G.— Ekintzak eta elementu ludikoak —jolaskak— nabarmentzen dira zure lanetan...

E.— Irakaslearengandik sortu behar du batipat ekintzak. Nik ikasle taldeari bere lanerako esparru psikiko, tekniko eta linguistikoa eman besterik ez diot egingo. Begibistakoa da ez ditudala ondorioak aurrez ikusiko. Oso ordenatua ez dela? Halaxekoak gara gizakiak. Nire ustez, lekzio onak badu bere inda-

rra, batez ere taldearengandik ateratzen denean. Jakina da «ariketa fisikoak» baduela garrantzia. Gorputza badugu eta gorputzak mugitu egin behar du. Hori normala da. Zergatik egon behar dugu eserita hizkuntza ikasteko? Gure klase askotan ahotsaren erabilera ere aski bixia izaten da. Klasean ez da oihurik egiten. Noiz edo noiz kantatu. Ez da ahopeka edo isilka hitzegiten ere. Badirudi ez dela zilegi gauza normalak egitea. Gonbarazio baterako, ez al zarete konturatu talde askok ikasgelan beti leku bera hartzeko joera duela? Batzutan komeni da taldearen leku batean egon behar hori bortxatzea, espazioari beste leku batetik begiratzeko.

G.— Zer irizten diozu itzulpenari ikaskuntzako estrategian?

E.— Hirurogei eta hirurogeita hamargarren hamarkadako uhin metodologikoaren garaikoa da itzulpenaren arbuioa, orduantxe eman bait zen metodo gramatikalen aurkako erreakzioa. Ortodoxia berri bat zen hura, aurretik egindako guztia zapuzten zuena. Baina gauzak beste era batera dira. Ondo go-goan daukat nire ikasleek hirurogeita hamargarren hamarkadan itzulpen asko egiten zutela, nik Zuzeneko Metodoa erabiltzen nuen arren. Zenbait ikasleentzat behar-beharrezkoa da itzulpena, une batzutan behintzat. Ziur nago burugabekeria dela itzulpena erabat galaraztea. Taldeko ikaskuntzan eskubide osoa du ikasleak nahi duenean itzulpena eskatzeko. Ikaslea konturatzen denean itzulpenik gabe hizkuntza erabiltzeko gai dela, asko pozten da. Interesgarria da ikustea ikasleak berak baztertzen duela itzulpena, eta azkar aski gainera.

G.— Eta ikasteko estrategia ona al da errepika?

E.— Niretzat, errepika funtsean bostere-arazoa da. Ikasleari errepika inposatzen baldin bazaio, aspertu egingo da seguru aski. Besterik da errepika ikaslearen eskariz egiten denean. Bestalde, forma artistikoetan ere pentsatu behar dugu. Errepikak ez du zertan aspergarria izanik. Pentsa kultuan ematen diren errepika ritualak, zezenketarako errepikak, errefrau, poema eta abestiak...

Begibistakoa da errepika atsegina izan daitekeela, eta indar ia hipnotikoa ere ukan dezakeela. Oso bestelakoak dira hirurogei eta hirurogeita hamargarren urteetako errepika-ariketak. Errepikaren arazoa berau egiten deneko botere-testuinguruan dago. Ikasleak errepika nahi badu, egiteko eskubidea du. Baina, alderantziz, horretara behartzen baldin bada, normala da aurkako erreakzioa sortzea. Badu honek bere garrantzia telebistaren bitartez ematen den zenbait hizkuntz irakasteko programatan. Oraindik ere errepika gehiegi sartzen bait dute. Kontua da telebistan ez dagoela elkarrekintzarik. Baina nik ez dakit arazo horri irtenbiderik ematen.

G.— *Zuk zenbait ariketa printzipio paradójikoan oinarritzen duzu. Zer da hori eta zergatik jo horretara?*

E.— Adibide bat izango da azalpenik argigarriena. Eman dezagun hiztegiaren birpasa egin nahi dugula. Birpasatu nahi diren hitz bazu aukeratzen dira; hogoita hamar, esaterako. Gero ikasleei eskatu aukera ditzatela hiru hitz, beren urtebetetzea baino lehen ahaztuko dituztenak, eta beste hiru, gogoan edukiko dituztenak. Gezurra badirudi ere, gogoan hartzen dira ustez ahaztuko diren hitzak. Errepidean aurkituko bagenu iragarki bat, «honi ez begiratu» liokeena, ziur nago begiratuko geniokeela, ezin bait da horrelako agindurik bete. Ikasleari, testuren batetik hitz batzu kendu eta kentzen den bakoitzean irakur erazteko ariketak ere printzipio horretan du bere oinarria: present ez dagoena presenteago dago. Printzipio horretan oinarritzen du bere terapia Kaliforniako Palo Altoko psikiatri eskolak. Inpotenteari, adibidez, hilabetean harreman sexualik ez edukitzeko agintzen zaio. Azkar aski sendatzen da horrela gaisoa.

G.— *Zeure idazkietan «anbiguitatearen printzipioa» aipatzen duzu sarritan eta autoadierazpena askatzeko zeinu sinpleak erabiltzea...*

E.— Bai. Nik uste dut indar handia duela irudimenak eta gizakia adimenduna dela. Bultzada txiki bat aski izango

du autoadierazpenaren atea zabaltzeko. Askotan, eta aurrez hartutako hezkuntza dela medio, ikasleek berek lotzen dute beren gaitasun hau. Jolasari —elementu ludikoari— beldur dio ikasle askok. Shiller olerkariak esana da jolasean dakienean bakarrik dela gizona gizon eta ez dezakeela jolasean jakin gizona deneino. Ni akort nago filosofia horrekin.

G.— *Zuri, Mario, espontaneitatearekin jolasean aritzea gustatzen zaizu. Gestalt zingle bat, marrazki bat, istorioren bateko hitzen bat edo esaldi-giltz bat, edozein mimo aski aitzakia da, ikasleak mila galdera egin ditzan. Beste batzutan istorio baten ondoren, esate baterako, zerorrek asmatutako galderak emango dizkiezu ikasleei. Horrelakoetan ere berak nahi duen edo garrantzizkoak iruditzen zaizkion galderak biltzeko aukera emango diozu ikasleari. Hori al da espontaneitatearekin eta ezarritakoarekin jolastea?*

E.— Bai. Horrela, ikasleak testutik nahi duena aukeratzeko eskubidea du. Testu bat askatasunez aukeratzen baldin badugu, ez zaigu hain arrotz egingo. Horixe da normalean helduok telebista eta prentsarekin egiten duguna. Norberak aukera egiten duenean, ez da hain lotua egoten.

G.— *Mario, dirudienez, zuk zabaldu duzu «bizkarrean idazteko» teknika. Zertarako da hori?*

E.— Eskolaurretik dator teknika hori. Ikustekoa da larruaren trabes, bizkarraren trabes, irakurtzen ikasten dugula. Ni horretan ia analfabetoa naiz; baina badituzt lagunak, hitzaren forma idatzia larruaren trabes atzemateko gauza direnak. Nire ustez, teknika ona da gorputzaren bitartez gauzak sentitzeko gaitasun berezia dutenentzat. Horrelakoentzat onuragarria izan daiteke. Nik giroa aldatzeko, tentsioak lasaitzeko, lanaldi zail eta luzeak sortutako nekea arintzeko erabili izan dut. Era berean, taldeko giro emotiboa neurtzeko ere.

G.— *Taldearen baitatik ateratzen den energia, dinamika, aitatu dituzu.*

E.— Bai. Zenbait irakaslek lekua eta denbora betetzeko hitzegiten du, eta horrela bere ezinegona sendatzeko. Irakasleak egoera horretan asko hitzegitea alferrikakoa eta kaltegarria iruditzen zait. Taldearen dinamika akabatu egiten da. Ni ez naiz irakaslea isilik edukitzearen aldeko, baina ikaslearen eta taldearen iharduna indartua ikusi nahi dut. Irakaslea istorioak kontatzeko abildarearen jabe baldin bada, oso egokia iruditzen zait hamar bat minututan hitzegiten aritzea. Baina, profesionalak garen bezala, ohartu behar dugu zenbat denbora dugun ikasgelan hizketan aritzeko. Eta ez diogu horri erreparatzen. Europako hogeita bi lurraldetako hezkuntza ertanei buruz ikerketa sakon eta zabala egin du John Trim-ek. Ikerketa horrek, ondo oinarritua, bestalde, garbi azaldu du ez zaiola ikasleari hizkuntza erabiltzeko lekurik ematen. Eta hitzegiten ez baldin bada, ezin ikasi hitzegiten. Ikasgelako antolamendua aldatu beharrean gara, beraz.

G.— *Elkarrizketa honen joanean aipatu duzun zenbait ikuspuntu metodologian minoritarioen tartean sartu ohi da. Izango da «hori ez dagokit», «horrek talde txiki edo berezietarako eta zenbait ezaugarri psikologiko dutenezako balioko du» esango duenik. Nolako oihartzuna dute ikuspuntu horiek, zure ustez, egungo egoeran?*

E.— Zuzeneko jarraitzaile gutxi du Gattegnoren metodoak. Hala ere, eragin handia izan du hezkuntza zentruen bitartez eta Stevick-en *Memory, meaning and method* edo *Teaching languages: a way and ways* eta antzeko liburuen bidez. *Grammar games* neure liburuaran erdia ere Gattegnoren bi ikaslerengandik jasotako inspirazioari zor diot. Nire lanaren bitartez, 12.000 ale saldu bait dira bi urteren buruan, uste dut Gattegnoren ideiek izango zutelako beren eragin sakona berreunen bat lagunengan eta arinagoa beste askorengan. Antzeko zerbaitek gertatzen da Montessoriren lanarekin, haren pentsakera eskolaurrerako mundu osora zabaldu bait da. Irakasle asko ari da haren metodo eta teknikekin lanean, maistra ospetsu hari zor zaizkiola jakin gabe. Zenbait pertsonaren pentsakerak urak bezala egiten du

bere lana: poliki-poliki eta ezarian nonahi sartzen da.

G.— *Zer derizkiozu hizkuntzalaritza aplikatuan azkeneko urte hauetan ezer gertatu ez dela diotenen jarrerari?*

E.— Bai. Ezagutzen duten materialaren zerranda egiteko eskatuko nieke hori diotenei. Egia da, bai, badira inolako berrikuntzarik ez duten materialak. Niretzat, ordea, Moskowitz-en *Caring and Sharing in the Foreign Language Class* berrikuntza handia izan zen. Era berean, gauza berri asko aurkitu dut Swan eta Walter-en *The Cambridge English Coursen*. Nirekiko, beraz, horrelako gauzak esaten dituztenen ezjakintasunaren baitan eta neurrian dago guztia.

G.— *Azken urteotan samaldan azaldu dira material berriak. Irakasleak galduta bezala aurkitzen dira eta zenbait konplexu ere egiten da. Ez ote da iritsi fenomeno horren benetako analisisa egiteko eta lehenetsuna kalitateari emateko garaia?*

E.— Egia da: orrialde asko idatzi da, baina ez da ideia berri asko sortu. Une honetan badira Ingalaterran zazpi mila titulu ingelesa ikasteko eta hiru-lau mila Estatu Batuetan. Bene-benetako luizia da. Baina gehienak beste batzuren imitazioak dira. Merkatal interesak daude tartean. Nire nazioan badira hogeitazazpi arrakasta izan duten liburuen kalkoak kaleratzen dituztenak. Behar-beharrezkoak ideiak dira, eta ideiak, zoritxarrez, ez dira hain ugariak izaten. Gertatzen dena ulertzeko, kontuan eduki behar da gure lan honetan soldadak ez direla onak izaten. Horregatik, gazteen adimena beste lanbide batzutaraz zuzentzen da. Idazleen multzoan, ondikotz, asko eta asko dira bigarren eta hirugarren mailakoak.

G.— *Zein alorretan eman daitezke, zure ustez, aurrerapenak gure langintza honetan?*

E.— Ez dakigu gizakiak hizkuntza nola ikasten duen. Ez ditugu ezagutzen horrelako gauza harrigarria ahalbideratzen duten mekanismoak. Uste dut burmuinaren ikerketak bide emango digula ikasteko eta pentsatzeko mekanismoak hobeto ezagutzeko. Alor horretan egingo dira oinarritzko ikerketak.

Agian hemendik berrogeita hamar urtera edo izango dituzte behin betiko erantzunak, une honetan erantzun zehatzak urruti dauden arren.

Nik neuk ez diot hizkuntzalaritzari etekin handirik atera. Abentura zoragarria iruditzen zait hizkuntzalaritza, baina niretzat ez du aplikazio praktikoa handirik izan. Onuragarriagoak izan dira psikologia eta psikoterapiako ikerketak. Zure galderari erantzunez, nola irakatsi jakin aurretik nola ikasten den jakin beharko litzateke. Uste dut azkenean burmuinaren aztertzaileek eman-goto dizkigutela bideak aurkitzeko klabeak.

G.— *Istorio-kontalari bikaina zara eta istorioak erabiltzearen oso aldeko. Zerbaito balioa aitortzen diezu?*

E.— Grabadorea erabiltzeko ohituran hazia naiz irakasle bezala. Lan asko egingo naiz grabadorearekin eta ez dizkiot ukatuko dituen merituak. Alabaina, istorioen kontalari bihurtzeak beste era bateko harremanetan jarri nau nire ikasleekin. Konturatu naiz ikasleek era berezian erantzuten dutela honelako kontakizunen aurrean. Zuregandik, zure gisa, ateratzen den testua beste era batera entzuten dute ikasleek. Gauza sakonak daude hemen jokoan. Gure hamar hilabeteko semetxoak «ez du hizkuntza ulertzen». Berarentzat hizkuntzako soinua afektibitateko zerbaiten zeinu dira. Nik uste dut hark ahotsaren gozotasuna entzuten duela; ez da iritsi oraindik hitzak esanahi semantikoa duela jakitera. Baina besoan hartu eta ipuinen bat kontatzen badiot, minutu gutxi barru lasaitzen da eta entzuten hasten, gorputza erabat pasibo eta hartzaile bihurtzen zaio. Uste dut istorioak entzutea oso gauza primitiboa dela, agian ondo ulertzen ez ditugun gauzak ukitzen ditugula, baina horien ondorioak ikusten ditugula.

G.— *Nola ikusten duzu irakasleagoa, zeure eskarmentuaren ikuspuntutik?*

E.— Lau bat mila irakasleekin lan egiten dut urtean, zenbaitetan Europatik oso urruti. Badakit «lujuzko» zenbait egoeratan balio duten teknika batzuekin ezin erabili direla beste zenbait egoeratan —baliabiderik ez denean, talde oso

handietan, irakatsi behar duen hizkuntza ondo menderatzen ez duen irakasleagoa...—. Nire ustez, European oso irakasle gutxitara helden da pentsakera «progresista», batez ere hezkuntza er-tainetan. *Dictation many ways* —dikta-ketarekin lanean— nire liburuak irakasle kontserbadoreenetara iritsi nahi du. Zeharbidez ideia berriak sartzeko modubata da, «tranpa jatorra». Oraindik ere bide luzea dago egiteko irakasleagoa kontzientziazten, horien sormenezko baliabideak argitaratzen.

G.— *Elkarrizketa hau bukatzeko, esaiguzu zerbait, oso laburki bederen, zuk bakarka edo besterekin batean egindako liburuez.*

E.— *The creative teaching of English.* Lehenengo zatia musikari eman zaio, bigarrenean antzerkia sartu da eta hirugarrenak, nik egindakoak, talde-dinamika aztertzen du. Hiru orientabide ikaslerik gehienentzat probetxugarriak izango direnak.

Grammar games. Gattegnoren Metodo Isilean oinarritua. Ikaslearen ezagumena lantzea du helburu nagusia.

Once upon a time. Ipuinaren magia.

Vocabulary. Hizkuntzalari grekoek orain dela 2.500 urte sinonimo, antonimo eta antzekoei buruzko gezurren bidez utzi zuten ikuspegitik atera nahi gaitu. Beharbada, ikuspegi psikologikoa eskaintzen da hiztegia lantzeko. Ez da lagungarri txarra Cambridge University Press-ek argitaratutakoa, *Working with words*, grekoen eskeman sakontzeko. Liburu honek, grekoen eskemak eta gaurrengungo semantika elkarrizketa, aski argi azaltzen du ikuspegi zahar hori, oraindik ere hainbeste aldatu ez dena.

Dictation many ways. Nire mintegietara inoiz etorriko ez diren irakasle kontserbadoreegiak «harrapatu» nahi ditut.

Challenge to think. Hizkuntza irakasle zenbait, literaturan ongi hezia dagoena, ez da alderdi teknikoek arduratu. Pentsakera tekniko-zientifikoaren jabe direlako, elkarrizketa eta ipuinek asetzen ez dituzten ikasleentzat idatzitako liburua da.